

{ koaderno } **Laura Mintegi**

Hegemonia ditzosozkoa

Hegemonia da norbait, zerbait, ideia-
ren bat, besteen gainetik kokatzea. Gainontzekoen
gainetik jartzen da, eta gainontzekoek
onartzen diote nagusitasuna. Ontzat ema-
ten dituzte bere ikuspuntua, balioak, sines-
menak eta usteak. Usteok ez dira jartzen

kolokan.

Hegemonikoa izatea pagotxa ikaragarria da. Kontrola
zureganatzen duzu orrazkera desegin gabe. Ez da behar
oihurik, ezta indar handirik ere (behin hegemonia lortu-
ta): hegemonikoa zarenez, beste guztiek hartuko dute
aintzat zuk diozuna. Kuadrilletan gertatzen den bezala:
eguneko plana liderrak proposatzen badu, bonbon; bai-
na kuadrillako baboak esaten badu, hor konpon. Inork ez
dio jaramonik egingo.

Politikaz ari bagara, noski, gakoa da jakitea nola esku-
ratzen den hegemonia. Zer egin norberaren diskurtsoa
hegemonikoa izateko. Ho-
rretan zebiltzan Gramsci,
Laclau, Mouffe eta enpa-
rauak, eta horretan dabiltza
alderdietako arduradunak
hauteskunde garaian berezi-
ki. Hegemonikoa ez baita,
halabeharrez, gehiengoa
duena; gutxiengoa ere hege-
monikoa izan daiteke eta
bere jitea ezarri, izan ere, ko-
puruz handiagoak diren
gainetik.

Hegemonikoa izateko, be-
raz, ez da ezinbestekoa asko
edo handiak izatea. Ez da
ezinbestekoa indarra edo bortxa erabiltzea. Autoritate
moral aitoritzen zaio hegemonia duenari eta ez da ezta-
baidatzen bere ikuspuntua, onartua delako.

Pertsuasioa, xarma, sinesgarritasuna, konstantzia, na-
turaltasuna, segurtasuna. Tresna eraginkorrak dira hege-
monia eskuratzeko. Bentzutu baino, konbentzitu.

Kontua da nola lortzen den hori guztia populazio plu-
ral, kontrajarri, muturtu eta lubakietan ibiltzen ohitua
duzunean parean. Nola.

Helburua argitzea da lehena. Zein da hegemoniaren
eremua, nori zuzenduko gataizkio, honezkero gure lu-
bakian bidelagun izan ditugunei ala lurraldeko bizila-
gun guztiei. Egiatan helburua zein da, norberaren ere-
mua egonkortzea ala eremua hedatzea. Etxea
egonkortzea bada, kolektibo horrentzat identifikaga-
rriak diren mezuak eta sinboloak erabiliko ditugu. Hel-

burua eremua handitzea baldin bada, bezero berriei zu-
zendutako mezuak eta moduak garatu beharko dira.
Partikularretik unibertsalera joko dugu, balio oinarri-
koak aldarrikatuko ditugu, aldarrikapen basikoak, lelo
hurbilak, mezu zuzenak eta ulergarriak, edonorengana
heltzeko modukoak.

EH Bilduren azken xedea da Euskal Herri independen-
tea, sozialista, euskalduna eta feminista lortzea. Herri
askea eta sozialki justua. Baina abiapuntua da dagoena:
euskal herri ezberdinak, anitzak eta pluralak, ideologia
kontrajarri ugari biltzen dutenak. Beren burua basko-
tzat jotzen dutenak, euskaradunak izanik espainol senti-
tzen direnak, joera matxista duten gizon eta emakume-
ak, poltsikoa bero badute edozein ideologia onartuko
luketenak. Langai horrekin egin behar da lan. Hori da
gaur egungo euskal herria, desiguala eta injustua. Urrun
dago Euskal Herria. Pelloren egia ematen badu ere, hasi

Pelloren egia ematen badu ere, hasi
beharko dugu azaltzen zergatik den
hobea, hobea denontzat, Euskal Herri
buruaskia eta sozialki justua. Zer dugun
irabazteko, denok irabazteko

beharko dugu azaltzen zergatik den hobea, hobea denon-
tzat, Euskal Herri buruaskia eta sozialki justua. Zer du-
gun irabazteko, denok irabazteko, herria elebiduna bada.
Zergatik komeni zaigun guztiei, guzti-guztiei, emakume-
en eskubideak errespetatzea.

Azaldu, argitu, esplikatu Euskal Herri horretan denok
ateratzen garela onuradun, baita independentzia nahi ez
dutenek ere, baita sozialista sentitzen ez direnak ere, bai-
ta joera matxista dutenek ere. Egun partikularra dena
unibertsala bihurtu behar dugu. Norbanako bakoitzaren-
tzat ona dena, denontzat da ona. Eta hori ikusarazi. Peda-
gogia egin.

Hau guztia ez da lortzen hilabeteen. Baina azken hel-
burua ez da hauteskundeak irabaztea, argi eduki deza-
gun. Azken helburua da Euskal Herri independentea, so-
zialista, euskalduna eta feminista lortzea. •